

## Lingua Navarrorum

## Lege proiektu baten aurrean

Titulu luzea du: «Ley foral reguladora del uso oficial y de la enseñanza del Euskara en Navarra y de determinación de las zonas de predominio lingüístico vasco». Lege-proiektua da oraingoz, eta parlamentuko talde politikoan eskuetan dago, beren eritziak, oharrak eta kritikak egin dituzten. Euskararen eta euskal kulturaren alorrean lanean ari diren elkarte eta erakundeek ez zaie eskutaratu, beren eritziak eman dituzten.

Baina ezin gaitzeko ixilik eta egonean geratu. Euskal Herri osoko euskal kulturagintzako eta euskararen defentsako talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinazio-zerbitzua da FKB (Euskal Kulturaren Batzarrea). Bere helburuak euskararen defentsa eta berreskurapena ditu, hain zuzen ere. Zeresanik eta zeregirik badugula uste dugu, lege-proiektu horren aurrean.

Hasteko, titulu luze baten azpian euskararentzako lege-proiektu oso «motz» baten aurrean gaudela esan behar da; areago, «euskararen berreskurapena eta garapena sustatzeko» omen datorenen legea, haren kontrako erasorik handienetakoa dela uste dugu. Hitz ederrek ezin dute ezkatutu proiektuaren azpiko asmo bihurria.

Ez gara horko puntu bakoitzaren azterketan abiatuko. Nafarroako indar eta erakunde politiko eta kulturazkoekin eginko dituzte beren baliozpenak. Euskara Euskal Herriaren hizkuntza nazionalizatza eta «Lingua navarrorum» izat daukaten guztiek gaitzespeneko hitzak besterik ez dituzte eduki lege-proiektuaren aurrean. EKBk, bere aldetik, horiek berretsi besterik ez du egingo: ahots gaitzesle horiekiko adostasuna eta batasuna agertzea datoz funtsean lerro hauek. Legearen funtsezko «filosofia» aurka gaude: Euskararen

defentsa eta berreskurapenaren orde, horren ordezkapenaren asmoa dago haren azpian, eta ordezkapenaren bidez, euskararen heriotza. «Filosofia» horren ondorio edo adierazgarria da euskara Nafarroako eskualde txiki batera baztertzera... «Indioen erreserba» esakunea erabili da zentzu onez baztertzera hiri adierazteko. Eskualde hori mugatze erabili diren erizpide murrizkorrek, bestalde, argi uzten dute lege-gaiaren azken artikuluen esanahia: hau da, «zonas de predominio vasco» horiek estutuz eta murriztuz joateko bide erraza irekitzen da artikuluko horrek; eta ez alderantziz, zabalduz joateko.

Asmo berberaren adierazgarria da beste datu hau ere: euskararen berreskurapenaren alde lanean diharduten lagun, talde, elkarte eta erakunde guztiak baztertu egin direla lege-gaiaren lanterakoan eta eztabaidatzerakoan. Prentsa-erakunde bakarrak ezagutu ahal izan dugu. Areago, legea ezezik, horren oinarri edo izan behar zuen azterketa soziolinguistikoa ere ezkatutu egin zaie erakunde herritarrei. Zeinen diruz egin da, bada, azterketa hori? Zergatik ezkatutu da? Lege-gaia bera nabarmenegi gelditzen delako?

Lege-gaiaren azpian ezkatuturik dauden asmoak asmo, horren helburuak ematean, hitz handi eta liluragarriak erabili dira: «amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el euskara», «impulsar la recuperación y el desarrollo del euskara», «garantziar el aprendizaje y el uso del euskara...» Agian bat baino gehiago engaina dezakete horrelako hitzek. Baina edonork daki lehen artikuluetan agertu ohi diren gogo ederrak, ondoko artikuluko hotzen harriekin josi behar izaten direla. Zoritxarrez, han edo hemen jaulkiriko gogo onen

adierazpenez gain, lege-gai horretako artikuluko hitzek eta zehatzek ez dute inola ere hasierako asmo handi haiek bideratzeko markorik eraten. Eta edonork daki, baita ere, asmo eta gogo hutsak asmo eta gogo ustelak besterik ez direla legeak egitean.

Bestalde, alferri ezarriko da euskararen ofizialkidetasuna «en las zonas de predominio vasco»: gezurrezko ofizialkidetasuna, bertako herritarrek beren hiriburuko administrazio publikoarekin erdaraz egin beharrean daudelako, Iruñea eskualde erdalduntzat jo denez.

«Lingua Navarrorum»-aren oihartzun historikoaz gain, benetan poztekoa eta kontutan hartekoa da, Euskararen egoerari buruzko txosten «ofizialean» nabarmendutako datu hau: Euskaraz ez dakiten nafarrek ere benetan balioztatzen dutela beren hizkuntza historikoa. Gainera ezin da ahantzi, hainbat nafar ari dela euskaldunberritzen. Guzti horrek lege-gaiaren funtsezko abiaburuak eta orientazioa aldatzea eskatzen du, «Ley del Amejoramiento del Fuero»-ko 9. artikulua bera aldatu ondoren.

Honako bi zutabetan oinarritu behar duela uste dugu Euskararen normalkuntzarako legeak Nafarroan: a) Nafar guztier eta bakoitzaren kultur ondasuna da euskara; b) Nafarroa osoan hizkuntza ofiziala da euskara.

Nafarroan, Euskal Herri osoan bezala, euskararen normalkuntza, legearen nahiz gizartearen eta kulturaren mailan, aurrera eramateko horretan diharduten talde, elkarte eta erakunde herritarren erantzukizuna eta beteki-zuna aitortu eta onartu behar dira; heritik bertatik datorren eragintzarik eta mugimendurik gabe ez bait da inola ere euskararen normalkuntza bideratuko.

Areago, euskararen etorkizuna hain arrisku handitan ikusten den une honetan, behar-beharrezkotzat jotzen dugu horren defentsarako eta berreskurapenerako indar herritar guztien koordinazioa eta batasuna. Horregatik, EKBk oso pozik ikusten eta bultzatzen ditu asmo horrekin egin diren ahaleginak, eta bereziki Euskara Guztiona eta Guztiontzat goiburua inguruan eratu den Euskararen Aldeko Batzarrea. Erakunde herritarren koordinaziotik bakarrik aterata ahal izango dugu euskararen kontrako erasoak aurrera egiteko eta antzinako «lingua navarrorum» gaurko Euskal Herri osoaren hizkuntza normaldu bihurtzeko.

EKB

Euskal Kulturaren Batzarrea

Irakurri  
asteroARGIA  
euskaldunontzat  
informazioa  
euskarazHizkuntzak jarrera  
pertsonal bat eskatzen du

(P. Agirrebaltzategi aitzakitzat harturik)

Agirrebaltzategi hizkuntza fenomeno kolektiboa dela adierazten zigun. Bai, noski. Baina hiztunaren baitan jarrera pertsonal bat eskatzen du zein hizkuntza erabili nahi duen erabakitzerakoan; adibidez, telebistako botoia sakatzean; taloia betetzekoan; eskutitz bat idazteko orduan; denda batera sartzerakoan; ordua eskatu edo ematerakoan; hitzaldi bat ematerakoan; senarrarekin edo andregaiarekin hitzegiterakoan...

Gure Herrian eskabide kolektiboak asko egin ditugu, eta oraindik egin beharko ditugu, baina erabaki pertsonalak hartzen ez dugu jakin. Jendeak gartsuki apoiatu ditu ekintza kolektibo horiek, baina ez du ondorio pertsonalik atera askotan eta askotan. Askok pentsatzen du Administrazioak legeak eginez gero konpondua dugula dena. Eta ez da egia, horrekin kaleko eskakizunak bakarrik konponduko genituzke.

Administrazioa, normalean, herri-eskakizunen atzetik ibiltzen da, eta ez hizkuntzaren arazoetan bakarrik. Normala da, beraz, guk Administrazioari gauzak eskatzea, euskara bizi nahi duen euskaldun baten bitartean obligazioa bait dauka Administrazioak hari ahalbideak emateko.

Baina, bestalde, Europako demokraziatiko funtzionamendua ikusirik, boterean dagoen alderdiak justifikatu egin behar izaten ditu bere gastuak oposizioaren aurrean, edo botatzaileen aurrean. Beraz, euskararen aldeko politika herritarrek administrazioak eskaintzen dituen esku-bide, edo ahalbide legalak eta praktikoak probetxatzen jakin behar du, inboluziorik gerta ez dadin.

Gure artean, Administrazioak eman gabeko gauzak oraindik baldin badira ere, aitortu beharra daukagula uste dut, ditugun ahalbideek ez diegula behar bezala erantzuten, jarrera pertsonalak failatzen digulako. Adibide bi, zenbat jendek egiten ditu bere eskakizunak (udaletara, diputazioetara, gobernura) euskara hutsean? Edo, zenbat erabiltzen ditu kutxazain automatikoak euskaraz? Ez dut uste jendea alfabetatu gabe dagoen aitzakiak balio duenik, «Zergatik ez dira alfabetatzen, dauden erraztasunak egonda?» bait litzateke hurrengo galdera.

## Euskaldunon apustua

Jarrera pertsonalarekin segituz, euskaldun batek euskararen aldeko erabakia hartzen badu, azken batean apustu bat egiten ari da: «Baietz ni euskaraz bizi eta baietz, nire bezalako jarrerekin, erdararen alde erabakia hartu dutenak euskaraz hitzegitera edo ikas-

tera ekarri». Horretarako gauza erakargarriak egin behar ditugu, imajinatioak izan, gauza politik, atseginak eta jakingarriak egin edo esan. Gakoa, nire ustez, euskaldunok eskaintzen dugun hartan dago.

Ez da txantxetako apustua, baina apustu bezala hartu behar dugula uste dut. Besteengan sor genezakeen ikasi nahian, eta euskara hutsean sortzen dugun, edo esaten dugun hartara iristeko euskara jakin beharrean bakarrik sinesten dut gure Herria euskalduntzeko mekanika gisa. Ez dut inorengan ezartzen den obligazio etiko-moralen emaitzetan sinesten, agian, obligazio horietan ere sinesten ez dudalako.

Euskaradunon eguneko jarrera pertsonal justifikatzen du edo ezereztatzen lanpostuetan euskaraz jakin beharra; gero, behar horren gainean sendotuko da legeko obligazioa. Izan ere, luzarora, zein justifikazio eduki lezake lanpostu baterako euskara eskatzeak, lantoki horretara ez bada ezer edo inor euskaraz eginez etortzen?

Eta apustu horretan, apustua denez, ez dugu espero behar «kontrarioak» gure alde egotea. Eta darabilgun gai honetan, ez dira «kontrarioak» bakarrik, euskaraz ez dakitenak, ikasi nahi ez dutenak, baizik eta erdaraz egiten duten guztiak, nahiz eta ideologiaz erabat euskararen aldeko izan. Gogoratu Gandiaren olerkia.

Apustu horretan dagoenak, apustuan segitu nahi badu, honako hau pentsatu behar du: «Egin bezate nahi duena, gureganatzeko indarra badiaugu eta». Ez dut uste Fragaren liberalismoarekin honek zerikusirik duenik.

## Pertsonalki, ez bakarka

Jarrerak pertsonala izan behar du, baina honek ez du burruka bakarka egin behar denik esan nahi. Elkarrekin asko laguntzen du aurrera egite horretan, apustu hau nekagarria da, momentuorokoa delako, eta elkarren laguntza oso ongarri gertatzen da. Elkarrekin, bada, laguntzeko, lasaitzeko, alaitzeko, animatzeko izan behar du, ez inori, gainera, obligazioak eta erantzukizunak gogoratzeke.

## Roilo gutxiago

Saiatu naiz labor izaten. Agirrebaltzategiren idatzen zeuden puntuei banan banan erantzuten aritu gabe. Hobe dela uste dut horrela, irakurlearentzat goxoago eta erakargarriago liratekeen gaitzatzat tokia utzi. Kezka aspaldikoa bait dut, ea euskarari buruzko roilo hauekin jendea animatu ala aspertu, zer egiten ote dugun.

M. AIZPURUA

bertsolari txapelketa  
nagusia 85-86ABENDUAK I  
IGANDEA

## OIARTZUN

Madalensoro  
Pilotalekuan  
Goizeko 11.30tan  
NARBAIZA  
EGUZKITZE  
ZEBERIO II  
SARASUA  
LEXO  
OLALDE  
EGANA  
ZIOLAR

Antolatzailea: Euskal Herriko Bertsolarien Elkarte

CAJA DE AHORROS  
MUNICIPALAURREZKI-KUTXA  
MUNICIPALA